

LIBRE
elkartasunetik
konpromisor



tolosaldeko
ataria



galtzaundi

TOLOSALDEKO hitza^o



Txolatre

2013- 1 8 • 10 zenb.

Libre!

Mikel Ayestaran, Aritz Lopez
eta Periko Gordo Espainiako
Auzitegi Nazionaletik pasa dira 13- 8

ELAren Mobilizazio Astea 4

Endakiko langileak greba
mugagabeen 5

Pello Lizardira 8- 9

Fernando Rojoren begirada
1913ko Euskal Jaiei 10- 1

Glaukomaren disko berria 21- 2



Zure iragarkia jartzeko
deitu
661 67 88 18
telefono zenbakira



Foruen Etorbidea, 7
20400 TOLOSA Gipuzkoa
Tel. 943 650 375
Faxa. 943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikarako Sailburuordea

enpresa katalogoak
aldizkariak
logotipoak
liburuak
publizitate komertziala
kartelak
egutegiak
bannerrak

antza
komunikazio grafikoa

Zirkuitu Ibilbidea, 2 / 2, pabiloia • 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 370 738 / Faxa: 943 372 226 • info@antza.com • www.antza.com



**ARALAR
KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

R.P.S. N° 140/10 I.L.G.

ZURE BIGARREN
VARILUX®
LEIAR PROGRESIBOAK
OPARI*

* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan

WERTi etxean sartzen utziko diozu?



Estitxu Eizagirre Kerejeta
Argiako zuzendaria

Tolosaldean irakaskuntza eskaintza oso anitza daukagu. Badira ikastolak, eskola txikiak, ikas komunitateak... guraso bakoitzak badu bere balore eta irizpideen arabera haurrak nora eraman erabakitzeko aukera. Aniztasun hau bera jarri du kolokan LOMCE legeak.

Ian ere, ordutegien %50 ikasgai ardatzek beteko dute: Gaztelera, Atzerriko hizkuntza, Matematika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, Geografia eta Historia. Eta Madrilgo Gobernuaren eskumena izango da ikasgai horien edukia zehaztea. Gainera, ikasgai horietan azterketa estandarrek gainditu beharko dituzte ikasleek 9, 12, 15 eta 18 urterekin: Espainiako estatu osoan bera izango den azterketa, denak egun berean pasako dutena, eskolaz kanpoko aztertzaileekin... Beraz, hemengo haur eta gazteek Espainiako Gobernuak finkatutako edukia ikasiko dituzte batipat. Wert bera-

ren esanetan «izaera nazionala» –uler bedi espainiarra– izango duten eduki homogeneoak.

Gurasoen parte hartzea bermatzen dute gure eskolek (eskola publikoetan erabaki nagusiak hartzen diren Organo Gorenean %50 gurasoak dira, legez. Eta ikastolak gurasoek berrek sortutako proiektuak dira). LOMCErekin, ordea, Gobernuak aukeratu-tako zuzendari profesionalaren esku egongo dira erabaki nagusiak, eta guraso, irakasle, ikasle eta gainerako eragileen ahalmena kontsulta mailakoa izango da.

Badugu, beraz, arrazoirik ikastetxe bakoitzean LOMCeri buruzko informazioa eta iritzia trukea zabaltzeko guraso eta irakasleen artean. Ikastetxe bakoitzean lortzen den adostasunaren arabera tokian tokiko erabakiak hartzeko, eta gainerako ikastetxeekin LOMCeri erantzun bateratua emateko, praktikan alternatibak martxan jarritz.

Hori egin ezean, gurasook gure burua aurkituko dugu umeei lektzioa hartuz azterketa orokorren bezperetan, «Tolosaldean, Espainian bizi garela, gure hizkuntza latinetik datorrela eta Cervantes dugula autore unibertsal»... zorionez ezagutu ez nuen eskola hura datorkit gogora.



Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L

Lege Gordailua: SS- 323- 013

Zuzendaria: Ainhoa Oiarzabal

Telefonoa: 943 655695

Faxa: 943 650018

Webgunea: www.ataria.info

E.P: ataria@ataria.info

Irratia: FM 107.6

Papereko editorea: Eneritz Maiz.

Interneteko editorea: Iñaki García Landa.

Irratiko editorea: Jon Miranda.

Tolosaldeko

Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:



Tolosaldeko gizarte eragileak

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• **Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, El-duain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hezkuntza Politikako Sailburuordetza

«Borrokara deitzen dugu, lortutakoa galtzear gaudelako»

ELAk manifestaziora deitu du bihar Donostian, eta Mobilizazio Astea egingo du datorren astean lurralde osoan

IÑIGO TERRADILLOS

ELA sindikatuak borrokatzera deitu dituzte langileak eta, oro har, gizarte osoa, ezarri dituzten erreformek «egoera hobetu baino okertzeko bidean jarri dutelako», eta gainera, aurreikuspenak «are eta okerragoak» direlako. Hala, batetik, bihar Donostian egingo den pentsioen erreformaren aurkako manifestaziora deitu dituzte herritarrek, eta bestetik, datorren asterako deitu duten Mobilizazio Asteko ekitaldietan parte hartzera gonbidatu dituzte.

Egoitz Iturbe Tolosaldeko eta Goierriko ELAko ordezkariak gogoratu duenez, duela bost urte gehiengo sindikalak lehenengo greba deialdia egin zutenean politikak aldatzen ez baziren murrizketak etorriko zirela ohartarazi zuten. «Zoritarrez guk esandakoa bete egin da: pentsio erreformak egon dira, lan erreformak, aurrekontuak izoztu egin dira eta ondorio larriak utzi dituzte hezkuntzan, osasungintzan, eta gizartearen beste hainbat esparrutan».

ELAk emandako datuen arabera, 50.000 lanpostu galdu dira dagoeneko 2013. urtean. «Euskal Autonomia Erkidegoan, %17,5ekoa da langabezia. Tolosaldean, 3.300 langabetu daude, %14,8koa da langabezia maila, azken urtean %1,8 handitu delarik. Gainera, langabetuen %45,2k ez du prestaziorik jasotzen». Era berean, sortzen diren kontratuak «oso urriak, prekarioak eta aldi baterakoak» dira. Horiek horrela, ELAren ustez, datuak «oso txarrak» dira, eta aurreikuspenak «are eta txarragoak».



Mikel Zabaleta eta Egoitz Iturbe ELA sindikatuko ordezkariak. i.t.

Bestalde, Espainiako Gobernuak burutu nahi duen pentsioen erreformaren aurka ere azaldu da ELAko ordezkaria. «Pentsioek, esaten dutenaren aurka, % 0,25eko igoera baino ez dute izango, txirotasun maila areagotuz». Pentsioen erreformaren aurka egiteko, eta oro har «erreformak uzten ari diren egoera salatze» deitu dituzte Tolosaldeko langileak eta herritarrek bihar, Donostian, 17:30ean, egingo den manifestazioan parte hartzera.

Borroka moldeak egokitzea

Bestalde, Espainiako Gobernuak ezarri dituzten erreformen bitartez arau asko «aldatu» dituztela, eta langileen eskubide asko «suntsitu» egin dituztela salatu dute ELAtik. «Beraz, orain patronalarekin negoziatzeko marko legala aldatu dute, negoziaketa deszentralizatu dute, eta ondorioz, enpresa bakoitzean, ugazaba bakoitzak nahi duen araudia eta baldintzak ezarri ahal ditu», esan du Mikel Zabaleta ELAko industria eta eraikuntza ordezkariak. Langileak «antolatuta eta indartsu» ez

dauden enpresetan, jabeak «nahi duena» egiten duela adierazi du. Ondorioz, «egoera berriei borroka moldeak» egokitze beharra ikusten du Zabaletak, bestela, «langileen eskubideak enpresaz enpresa suntsitzeko arriskua baitago».

Hala, herrialde mailako hitzarmenak sinatzearen alde jarraitzearen garrantzia nabarmendu du ELAk, «hitzarmenak sinatu gabe langileek orain arte lortutako eskubide asko desagertu egiten ari direlako». Baina, erreformaren ondorioz, lurraldekako hitzarmenak sinatzearekin batera, egun «negoziatzeko esparru eraginkorra» enpresetan dagoela adierazi du.

Horren harira, ELAk Mobilizazio Astea deitu du datorren astean Hego Euskal Herri osoan, «negoziatzen ari diren enpresetako langileei bultzada emateko helburuarekin». Mobilizazio ugari izango dira, eta hilaren 24an egingo dute ekitaldi nagusia Bilbon, manifestazioarekin. «Borrokarako unea» dela adierazi du Zabaletak, «gure eskubideak defendatzeko garaia da».



Adunako Endaki enpresako langileek grebaren eta enpresan egoeraren berri eman dute agerraldi batean. i.t.

Endakiko langileak greba mugagabea daude zuzendaritzaren «utzikeriagatik»

Astlehenean ekin zioten grebari; 33 langile dituen Adunako lantegia ixteko asmoa azaldu du enpresak

INIGO TERRADILLOS ADUNA

Iragan astelehenean, hilaren 14tik, greba mugagabea daude Adunako Endaki SLko 33 langileak. Beraiek azaldutakoaren arabera, «krisiaren eta zuzendaritzaren neurri desegokiak ondorioz» iritsi dira egoera horretara.

Langileek adierazi dutenez, sektore eolikoa, aeronautika, petroleoa nahiz ontzigintza piezen mekanizazioan lan egiten duen enpresan hiru urte eta erdiko epean lan erregulazio txosten jasan behar izan dituzte, 2009ko ekainetik 2012ko azarora. Horrez gain, 9 nomina dituztela ordaintzeko salatu dute.

Hala, urriaren 4an, enpresari zorra onartzeko kontziliaketa papeleta sartu behar zutela eta urriaren 14tik aurrera greba mugagabea ekingo ziotela jakinarazi zioten. Hori guztia, «9 hilabetetan soldatarik kobratu gabe, inongo informaziorik jaso gabe eta egoerari irtenbiderik eman gabe egon ondoren».

Bada, lau egun geroago bideragarritasun plan bat aurkeztu ziela enpresak azaldu dute langileek. Plan horren arabera, Adunako Endaki SI ixtea aurreikusten du enpresak, eta bertako 18 langile «kalte ordainik gabe» kaleratzea. Langileek adierazi dutenaren arabera, gainerako 15 langileak Lekunberrin kokaturik dagoen eta «egoera beretsuan» den Endaki 2ra aldatzea proposatzen da. Horiek abendura arte soldata kobratu gabe jarraituko lukete, eta urtariletik aurrera kobratzen has-teko aukera izango lukete. Bideragarri-

tasun plan horretan lanpostua uzteko aukera ere proposatzen du enpresak, eta «elkarrekin eta norabide berean arraun egitea» gomendatzen die langileei.

Astlehenean greba mugagabea hasiko zirela ohartarazi ostean, enpresak Lan Delegaritzan itxiera patronala erregistratu zuen.

Langileek argi dute egun bizi duten egoerara zergatik iritsi diren: «Zuzendaritzaren utzikeria eta gaitasun eza-rengatik ailegatu gara egoera honetara, eta 9 hilabeteko zorraren ostean, guztiok batera lan egitea eskatzen digute, nora goazen jakin gabe, eta enpresako zuzendaritzaren apustua benetakoa den inolako bermerik eman gabe». Langileek diotenez, enpresak «ez du inongo ekarpenik egin», eta «esfortzu guztia» langileen bizkar gainean utzi dute.

Irudia Tolosa



Herritar asko Lasa eta Zabalaren omenaldian

Jendetza elkartu zen herenegun Joxean Lasa eta Joxi Zabala tolosarren omenezko ekitaldian, Tolosako Bentaundi auzoan bi gazteren omenez dagoen monolitoaren aurrean. Senideek lore eskaintza egin zuten, eta eskerrak

eman zieten omenaldira joan zirenei zein babesa eman zuten guztiei. Bihar, Tolosako Pizkunde plazan, beste omenaldia bat egingo zaie Lasa eta Zabalarri. 11:30ean hasiko da. [ATARIA](#)

Saralegik Lau t'erdikoaren lehena partida jokatu du gaur

Urrutikoetxearen aurka jokatu du amezketarrak; igandean, Mikel Olaetxearen txanda izango da

AINHOA OIARTZABAL

Gaur Balmasedan (Bizkaia) jokatu du Lau t'erdiko pilota txapelketaren lehen partida, Ekaitz Saralegi (Amezketarra, 1979) eta Mikel Urrutikoetxea pilotarien artean. Amezketarrak partida irabaziko balu, Titin III. izango luke aurkari urriaren 27an jokatu den partidari. Tricioko pilotariak hogeigarren eta azken parte hartzea du txapelketa hone-

tan, eta horrenbestez, ikusmin handia sortuko du.

Partida horien ostean, B taldearen ligaxka jokatu da azaroan, eta bertako partidetan hartuko dute parte Arretxe II.ak eta Bengoetxea VI.ak.

Igandean Olaetxea Zaratamon

Igandean hiru partida jokatu dira, eta Mikel Olaetxeak (Lizartza, 1985) hartuko du parte partida horietako batean; Zaratamoko (Bizkaia) pilotalekuan jokatu du partida, Elezkano II.aren aurka. Partida horretan gailentzen denak Xalaren kontra jokatu du

urriaren 27an izango den partidari. Behin partida hauen ostean, Olaizola II.a eta Irujoren txanda helduko da, azaroan jokatu den A taldearen ligaxkan hartuko baitute parte.

Finala abenduaren 8an

Herenegun Zarautzen egin zituzten zozketak eta erabaki zuten Lau t'erdiko Pilota Txapelketaren antolaketa, eta ikusmin handia sortuko duela gauza nahikoa ziurra da, besteak beste, Irujo eta Olaizola II.a finalaurdenetako multzo berean jarri dituztelako. Finala abenduaren 8an jokatu du.

Rolleskilariek jomuga izango dute, beste behin, Hernialde

Alpino Uzturre elkarteak antolatzen duen proba 16:00etan hasiko da bihar; skating eta klasiko eran ariko dira kirolariak

I. GARCIA LANDA HERNIALDE

Tolosako Alpino Uzturre elkarteak, urtero bezala, aurten ere antolatu du Hernialdeko Rolleski Igoera. Bihar, hilak 19, egingo da proba, eta bi modalitate-tan lehiatuko dira parte hartzaileak: skating eta modu klasikoan.

Irteera 16:00etan izango da, skating estiloan parte hartuko dutenentzat, Tolosako Belate auzotik. Klasiko eran parte hartuko dutenak, berriz, 16:05ean hasiko dira Hernialdeko Bentatik. Bi modalitatetako kirolariak helmuga Hernialdeko plazan izango dute.

Iraupen eskian aritzen direnek rolleskia erabili ohi dute errepidean entrenatzeko. Bi gurgildun eskia dela

esan daiteke, eta, elurretan bezala, klasiko eta skating estiloa lantzen dituzte.

Elurra iritsi aurretik, Gipuzkoa eta Nafarroan hainbat lasterketa antolatu dira, tartean Hernialdeko Rolleski Igoera, eta proba horiekin osatutako liga egiten dute. Proba guzti horiek aukera onak izan ohi dira iraupen eskian aritzen diren eskiazaileen indarrak neurtzeko.

Hernialdeko Rolleski Igoeran parte hartzeko edota informazio gehiago jasotzeko bi aukera eman dituzte Alpino Uzturre elkartetik. Batetik, 685 776 504 telefono zenbakira deitu daiteke (arratsaldean) edota posta elektronikora mezua idatzi daiteke uzturre@hotmail.es helbidera.

Loatzo musika eskola, Nafarroa Oinezen

TOLOSALDEA. Tronpeta, biolina eta eskusoinua hartuta, Loatzo musika eskolako kideek Tuterarako bidea egingo dute igandean, Nafarroa Oinezen parte hartzeko. Erriberako Argia ikastolaren aldekoa izango da aurten go jaialdia, eta gure eskualdeko musika eskolakoei ere euren elkartasuna adierazi nahi diote ikastola nafarrari. Pasa den udaberrian, Argia ikastola ezagutzeko aukera izan zuten Loatzo-koei, hango musikariek emanaldian parte hartuz eta kalejira eginez.

Larramendi auzoko festetarako txartelak

TOLOSA. Tolosako Larramendi jaiak hurrengo asteburuan izango dira, hilaren 24tik 27ra. Hilaren 26an izango da auzo bazkaria eta horretarako txartelak salgai daude auzoko taberna eta okindegitan; astelehena da azken eguna horretarako. Bestalde, iaz bezala, danborrada antolatu dute. Hilaren 26an izango da, arratsaldean. Datorren astelehenerako eman behar da izena, eta entseguak astelehenean bertan eta asteazkenean izango dira, 18:30ean, Arkauteko eraikinean.

Gune estaliari buruzko parte hartze prozesua

IBARRA. Hainbat ekimen egiteko, gune estali baten beharra ikusita, Ibarako Udalak parte hartze prozesua jarri du abian, iradokizunak biltzeko. Astelehenean 18:00etan egin dute hitzordua, plazan.

Hondakinak atez ate bilduko dituzte

IKAZTEGIETA. Eskualdeko herri batzuen lana eta emaitzak ezagutu ondoren, atez ateko bilketa sistemari ekitea erabaki dute. Herriarrek hitz egiteko, bilerak izango dira gaur 20:00etan, eta bihar, 11:00etan.

Irudia Tolosa



Poloniar ikasleak Hirukiden elkartrukean

Poznango (Polonia) 17 ikasle eta bi irakasle izan dira egunotan Tolosan, Hirukideko ikasleekin elkartrukean. Tolosako ikasleek Aste Santuan bisita bueltatuko diete.

Poloniarrek Gipuzkoa ezagutzeko aprobetxatu dute: Donostia, Loiola, Arantzazu, Oñati... Tolosako Udalararen izenean Hasier de los Ríosek harria ofiziala egin zien. **ATARIA**

Zain dagoenaren itxaropena

Lizardiko kideek bost urte daramatzate jada, Pello Odriozolaren Parot Doktrina egoera salatzen

ITZEA URKIZU TOLOSA

Astelehenean ezagutaraziko du, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak, Parot Doktrinari buruzko azken ebazpena. Egiiazki Estrasburgok Ines Del Rio presoaren egoera epaituko duen arren, Euskal Herrian 197/2006 doktrinaren pean dauden gainerako 70 presoeri ere eragingo die erabakiak, eta horietako bat izango da Pello Odriozola tolosarra.

2008ko uztailaren 2an bete zuen, Odriozolak, zigor osoa; doktrina aplikatuta, ordea, hamar urtez luzatu zioten espetxeko egonaldia, eta orduan jaio zen *Pello Lizardira!* izeneko egitasmoa.

Bat etorri dira Koldo Maiz, Txetxe Goenaga, Inazio Agirre eta Jesus Mari Agirre, Odriozola lagunaren izaera mailagarria nabarmentzerakoan; eta egia behar du izan, hari buruz galdetu eta irribarreak erraz sortzen baitzaizkie aurpegian. Lagunak eta Lizardi elkarte-kideak dira guztiak, eta ia 26 urteren ondoren ere, bizirik dago Odriozolarekin duten harremana: «Elkartean oso integratuta zegoen, eta orain ere, fisikoki hemen ez dagoen arren, afari guztietan mahaian egoten da, ez da hutsune bat», diote.

2008an, hogeitauko zigorra bete eta kartzelatik ateratzeko jaio zen Pello Odriozola, baina beste hainbat presori bezala, 197/2006 doktrina aplikatu eta 2018ra arte luzatu zioten egonaldia. Lizardiko kideek «oso-oso gaizki» hartu zuten erabakia, baina espero zutela ere azaldu dute: «Aurreko zenbait kasu ezagututa, denok espero genuen halako zerbait, eta zoritxarrez hala gertatu zen», dio Goenagak.

Zain dagoenaren lekutik, egutegian gurutze gehiago egitea ekarri zuen



Txetxe Goenaga, Koldo Maiz, Inazio Agirre eta Jesus Mari Agirre, Lizardin. ITZEA URKIZU

doktrina aplikatzeak, Koldo Maizek azaldu bezala: «Hasieran, zigorraren urte guztiak bete baino lehenago aterako zela pentsatzen genuen, egun jakin batzuek betetakoan kaleratzen baitziztuzten batzuk. Garai hartako politikagintzarekin, ordea, zail ikusten genuen hori, eta zigor osoa betetzera iritsi zen. Oraindik ere beldur horrekin gaude orain, zenbat denboraz jarraituko duen pentsatuz. Ea Estrasburgok zer dion».

Doktrina aplikatu izanak Pello Odriozola bera ez zuen ezustean harra-

sako zituen, noski. Nik aspaldi ez dut ikusi, ez didatelako baimenik ematen, baina lehen bisitan joaten ginen baikoitzean, berak ematen zizkigun animoak eta indarrak barrutik, alderantziz izan beharrean».

Astero osterastera

«Ia-ia zain geunden, Pellorekin noiz elkartuko. Eta halako kolpea jaso genuen kanpoan geundenok... Bat-bateko erantzuna izan zen egitasmoarena, zerbait egin behar genuela sentitzen genuelako; jendeari adierazi behar genion gauzak nola zeuden»; dio Inazio Agirrek.

Parot Doktrinaren berri izatearekin batera jaio zen, beraz, *Pello Lizardira!* egitasmoa, elkarteko balkoian kartel bat jarritz: «Doktrinaren eraginak ondo irudikatzen, Pellok bere kondena bete ondoren, espetxean zenbat egun gehiago zeramatzan kontatzeko kartel bat jarri genuen Lizardiko balkoian».

Honek Ertzaintzaren jakinarazpen bat ekarri zion elkarteari, balkoitik kartela kentzen ez bazuten Auzitegi Nazionalera jo zezaketela ohartaraziz. Lizardik jarritako errekurtsioa, ordea, onartu

“

**Bat-bateko
erantzuna izan zen
egitasmoarena»**

LIZARDIKO KIDEAK

patu; «burua txarrenean jarrita zuela uste dut, badaezpada ere», dio Goenagak. Honen harira, izaera sendoak espetxean asko lagundu diola nabarmendu dute: «Horretan inbidia sortzeko modukoa da, ikaragarria baita duen indar psikologikoa. Burua bere lekuan oso ondo izaten du beti. Bereak ere pa-

egin zuen epaitegiak, eta beren alde atera ziren.

Bitarte horretan, auziak nora joko zuen ez zekitenez, *Pello Lizardira!* lelopean pankarta bat egin eta udaletxe aurrean jartzen hasi ziren, astero-astero. Plaza Zaharra izan zen aldarrikapena kaleratzeko lehen lekua, eta gero Trianguloa plazara pasa zuten elkarretaratzea. Gaur egun, hileko lehen osteguna izaten da, Pello Odriozolaren egoera salatzen mobilizazioa: «Batzuetan jende gehiago elkarrekin gara, eta beste batzuetan gutxiago, baina hori da gure ibilbidea. Norberak bere egunerokoa du, eta hilabetero ezin da jende kopuru bera elkartu», diote lagunek.

Odriozolaren lau lagunek nahiz Lizardi elkarteak, aldarrikapenekin jarraitzeko asmoa du, Pello Odriozolaren egoerak berdin jarraitzen badu. Onartzen dute, «kosta egiten da» halako egitasmoak mantentzea, baina ahal duten bitartean Odriozolaren eskubideen alde ariko direla diote.

Izan ere, Pello Odriozola tolosarra aipatzen duten arren, «giza eskubide guztien aldeko defentsa da hau», diote: «Guk Pello aipatzen dugu, gurea delako, eta hemengoa delako. Baina finean, hemen dagoena Pelloren moduan dauden beste guztien arazoa ere bada; Euskal Herriko arazoa da konpondu behar dena. Hau arazo orokor baten barruan sartu behar da, eta giza eskubide guztien defentsa da egin nahi duguna».

«Beren eskuetan gaude»

«Guk urte asko ditugu jada, eta Espainiarekin oso eskarmentu txarrak izan ditugu. Berengandik ezin dugu ezer espero, eta beraz, guk egiten ez badugu, ez dugu ezer lortuko». Odriozolaren aldeko defentsa horretan, beraz, oinak lurrean dituzte lau lagunek.

Hala ere, Estrasburgora begira daude: «Gauza bat da juridikoki zer gertatzen den, eta beste gauza bat, politikoki zer egiten duten. Espainia behartuta dago Estrasburgoko Giza Eskubideen Epaitegiak esandakoa betetzera,

baina politikoki luzatu egin dezake hori guztia», dio Inazio Agirrek.

Epaia Parot Doktrina deusezteko agindua izanda ere, kasuz kasu erabaki desberdinak hartuko dituztela uste dute Odriozolaren lagunek: «Justiziak horretarako eta gehiagorako epea



**Giza eskubide
guztien defentsa
da hau**

LIZARDIKO KIDEAK

ematen die, eta erabat kontu politikoa denez, politikoki konpondu behar da», dio Goenagak. Hari berari jarraituz, «erabaki bakoitza momentu horretako

egoeraren arabera» izango dela uste du Koldo Maizek: «Legeak betetzen dituztela erakusteko ere interesatzen zaie zer bait egitea, eta gero, izango dute agian, pertsonaren eta eremuaren arabera, erabaki aldaketarik. Beren eskuetan gaude, baina itxaropena ere badugu».

Pello Odriozola bera ere, «beti txarrrena entzuteko prest» izan dela nabarmendu dute lau lagunek: «Bera oso jantzia da politikoki, eta askotan esaten zuen euskaldunok gaizki tratatu izan gaituztela beti, hauekin irtenbiderik ez dugula. Azken finean, denon giza eskubideez ari gara, eta berak oso ondo zekien doktrina aplikatu ziotenean, eta baita orain ere, aurrean zein di-tuen».



Mende laurdeneko hariak

1988ko urtarrilaren 28an atxilotu zuen, Espainiako Polizia Nazionalak, Pello Odriozola, eta ia 26 urte daramatza, beraz, espetxean, eta Alcalá de Henaresen, Valdemoron, Herrera de la Manchan, Ourense eta Lugoko Bonxen egon izan da. Gaur egun, Zuerako espetxean dago Odriozola.

Mende laurdena baino gehiago kartzelan damaran arren, ez ditu inondik ere bere senide, lagun nahiz herriarekin dituen hariak eten, eta erabateko harremana du Tolosarekin: «Beti bidaltzen dizkigu eskutitzak, eguberrietan nahiz inauterietan, eta umorezko postalak ere jasotzen ditugu», dio Jesus Mari Agirrek.

Herrian gertatzen den guztia oso

gertutik jarraitzen duela diote, «bisita joaten direnek helarazten baitiote guztia».

Horrela, festarako gogorik ere ez du galdu, eta inauterietan telefonoz deitzen die Lizardiko kideei: «Astearritan, 22:15ak aldera deitzen du, eta kalean gaudenok hitz egiten dugu berarekin. Konpartsan beti jartzen dugu bera gogora ekartzeko irudiren bat, gainera».

Halako gauzak sinpleak diren arren, harremanei denboran barrena eusteko oso baliagarriak direla diote Lizardiko lagunek: «Fisikoki ez dago hemen, baina gurekin egoten da beti, eta oso gogoan dugu zein tipo berezia den, aparta».

Azken Euskal Jaiak Tolosan 1913an

Duela ehun urte ospatu ziren Tolosan «Fiestas Eúskaras» izenpean Gipuzkoako herrietan Foru Aldundiaren eskutik ospatzen ziren azken euskal jaiak.

Fernando Rojo Tolosa
Historiako irakaslea

Uztailaren 24 eta 29aren artean antolatuta, garaiko kronikek diotenez sekulako arrakasta izan zuten, aurreko urtekoak ere gaindituz. Azkenak izan ziren, ezen hurrengo urtean Hondarribiak hartu behar zuen lekukoa baina hila bete lehenago Lehen Mundu Gerra hasi baitzen. Europan ez zen giorik jaietarako.

XIX. mendea Erromantizismoaren garaia da. Europako herrialdeek herri sentimenduen loraldi bat ezagutu zuten eta herrien identitatea suspertzeko hainbat mugimendu kultural eta politiko eman ziren Alemanian hasi eta kontinente guztian zabalduz. Mugimendu eta ekitaldion helburua herrien eta herri-

tarren historia, hizkuntza, ohiturak, artea eta erlijioa sustatzea zen. Euskal Herrian mugimendu honen esponente nagusia zuberotar noblezia familiako Anton Abadia zientzialaria eta kultur eragilea izan zen. Euskal literatura bultzatzeko xedetan berak antolatu eta ordaindu zituen 1853an lehen aldiz Lore Jokoak izeneko jaiak Urruñan (Lapurdi). Gerora, jai haiek hegoaldera ere ekarri nahi izan zituen eta Gipuzkoako lehenak Irun (1881) eta Azpeitia (1893) izan ziren. Ordea, 1896an lehendabiziko aldiz Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu zion lekukoa euskal jai haien antolaketa eta Arrasaten ospatu ziren. Orduz geroztik herriz herri bizitu zituzten urtero, 1913an Tolosan azkenak egin ziren arte.

Euskalerrriaren Alde aldizkaria

izan zen festa haien lekuko zuzena. Hamabostean behin argitaratzen zen kultur aldizkari honen 61, 62 eta 63 zenbakiak bateratuta edizio berezi batean eman zituzten jai haien xehetasun guztiak. Orri asko utzi dizkigute garaia dagokion estilo, halaxe aurkeztu baitzituen jai aurretikoak: «¡Que mayor gloria para EUSKALERRRIAREN ALDE que ser útil á Tolosa, á Guipuzcoa y á Euskalerrria!».

Fiestas Eúskaras haietan denetako ekimenak ikusi ziren Tolosako kaleetan, literatur lehiaketak, dantza emanaldiak, Herri Kirolak, kontzertuak, arte erakusketak, bertsolariak, pilota partidak, Industria eta Merkataritza museoa eta gauetan dantzaldiak. Egitarauaren barnean benetako izarra abeltzain eta nekazaritza lehiaketa izan zen. Tolosal-

deko baserrietatik jaitsitako base-
rritarrek ekarri zituzten abereekin,
hiriko kaleak dotorezi guztiz jantzi
zituzten. Zezen eta behiak, zaldi
eta behorrak, zerri eta zerramak,
ahari eta ardiak, kaleetan desfilatu
zuten, Tolosako industrializazioa
hasita bazegoen ere, abeltzaintza
ere bertako ekonomiaren oinarri
nagusienetakoa zela argi agertuz.
Eta gure kulturaren parte ezinbes-
tekoa ere. Horiez gain, loreak, labo-
rantza-produktuak eta barazki zein
lekaleen azokak ere izan ziren
egun horietan.


Orduan ere, gaur bezalaxe, hi-
tzaaldiak ez ziren oso ekimen era-
kargarriak. Hala ere, Centro Musi-
cal Tolosano aretoan eman ziren
lau hitzaaldiak oso jendetsuak izan
ei ziren. Nemesio Otañ konposagi-
leak Euskal Herriko musikari buruz
hitz egin zuen, Gregorio Mugikak
sorgiñen inguruan, Carmelo Eche-
garayk Gipuzkoako nekazaritza
izan zuen ardatz eta Mariano Adan
de Yarzak baso-birpopulaketaren
gaia landu zuen. Aretoak gainezka
egin zuen lau kasuetan, ez omen
zen inor gehiago sartzen tokian eta
hizlariak txalo zaparradaz eskertu
zituzten bertaratutakoek, «No es-
perábamos que las conferencias
dadas en Tolosa con motivo de las
Fiestas Euskaras tuvieran el gran
éxito que han tenido», zioen *Euska-
lerraren Alde* aldizkariak.

Kronikek diote uztailaren 26an
Gipuzkoako ordezkariak etorri zire-



Abeltzain lehiaketa

la gonbidatu gisa; herritarrek, mi-
kelete, bordondantzari, dantzari-
txiki zein buruhandi eta erraldoien
laguntzaz tren geltokira hurrendu
ziren Foru Ahaldunei ongi etorria
emateko, Udal Bandak Gernikako
Arbolaren doinuak jotzen zuten bi-
tartean. Gero denak udaletxera
joan ziren, ohorezko omena jaso-
tzera. Egunk jendetsuena igandea
izan zen, politikari eta gonbidatu
guztiak batera bazkaldu ostean
(menua euskaraz eskainia izan
zen), Foruen Plazan Ohorezko Au-
rreskua dantzatu zen. Aurreskulari
eta atzeskulari lanetan, Ahaldun
Nagusia, Gervasio Aramburu, eta
Tolosako alkatea, Jesus Caballero,
izan ziren. Bikoteari dantzatzeko
orduan bata bestearenari eskaini
zion ohorezko agurra, dantza ho-
nek eta garaiko kortesiak eskatzen
zituen legeak betez. «Los balcones
abarrotados de gente, y racimos de
personas colgadas de las rejas y
subidas a los postes, y un inmenso
que se apiñaba en las aceras y en



Anton Abadia



Tolosako zezen plazan, 1913ko
uztailaren 29an dantzatutako aureskua

las calles, y en la misma plaza, que los miqueletes se esforzaban en despejar. (...) Cuando la cuerda salió a la plaza estalló la ovación primera.» Hurrengo egunean diputatuek berriro dantzatu zuten Aurreskua zezen- lapan.

Euskal artistek ere izan zuten zegokien protagonismoa. Euskal artea goraipatzea zen helburueta-ko bat eta, gaur Musika Eskola ko- katzen den tokian eta duela ehun urte *Escuelas Municipales* ziren hartan, jaiek iraundako 6 egune- tan artelanen erakusketa ezarri zen. Aparteko garrantzia eman nahi izan zioten *Euskal Artearen Erakusketari*, xede nagusi batekin eraman zutelarik aurrera, «... el de echar por tierra el manoseado tó-

pico de que los vascos carecemos de aptitudes artísticas». Topiko horri aurre egiteko bada argazi-kiak, eskulturak, pinturak eta egur-tailuak jarri ziren, euskal lu-rraldeetatik artistek ekarritako la- nekin.

Tolosa musika tradizio handiko hiria zen. Horren isla egunero izan ziren orotariko musika emanal- diak, hala nola, gau jaialdiak, dan- tzaldiak, txistulariak, Udal Banda, besteak beste. Horien artean arra- kastarik esanguratsuen Euskal Musikaren Entzunaldiak eduki zuen. Eskolapioetako areto nagu- sian Eduardo Mocoroa eta Tolosa-ko Orfeoiaik saio berezi bat eskaini zuten, non euskal piezen moldae- rak jo eta abestu baitzituzten. Ga-

raiko musikari ezagunak bertara- tu ziren, ikus-entzuleen artean izen handiko musikariak zeudela- rik: Nemesio Otaño eta Jesus Guri- di, besteak beste. Jendearen txa- loek biok taulara igotzera behartu zituzten Eduardo Mocoroa berak zuzendu zuen saio hartan.

Aipatu bezala, *Euskalerraren Alde* kultur aldizkariak egun haien kronikak utzi dizkigu xehetasun guztiz eta jakin ahal izan dugu jai haiek zer suposatu zuten garai hartan. Arrasto handia utzi zuten hirian. 100 urte bete dira eta ai- tzakia ona da Euskal Jai haiek go- goratzeko. Horregatik hiriko eragi- le ezberdinen ekimenez hurrengo hilean hainbat ekitaldi ospatuko dira.

J. de U. 3689. E. 1 carp. Euskal. Jaiak

5514
(30)



PROGRAMA
DE LAS
■■ Fiestas ■■
EUSKARAS
QUE SE CELEBRARÁN EN LA M. N. L. Y V. VILLA
DE
TOLOSA
los días 24. 25, 26, 27, 28 y 29 de Julio de 1913.

Espainiako Auzitegi Nazionaletik datorren irrintzia: «Libre!»

Erreportajea



Mikel Ayestaran billabonatarra eta Aritz Lopez eta Periko Gordo tolosarrak aste horetan Madrilen izan dira Espainiako Auzitegi Nazionalean deklaratzeko

Segi ETA da, eta Segiko kide izatea, ETako kide izatea da. Espainiako Auzitegi Gorenak irizpide hori jarraitu zuen 2013ko apirilean, Donostiako 15 gazte independentisten aurkako epaiketari. Hori horrela balitz, gazteak Segikoak direla ziurtatzea, nahikoa litzateke gazteak ETakoak direla frogatzeko. Donostiako hamabosten kasuan, Espainiako Auzitegi Nazionalak lehenik, eta Auzitegi Gorenak ondoren, zein frogak aurkeztu zituen gazteak Segikoak zirela esateko?

Aritz Sorzabal IRUTXULOKO HITZA egunkariko zuzendariak, honela kontatu zuen *Non dago delitua?* artikuluan: «Euskal Herriko hainbat gazteren etxetan aurki daitezkeen gauzak besterik ez dituzte aurkeztu frogak gisa. 'Xoxoaren Xirula' izeneko musika CD bat, euskara eta autode-terminazioaren aldeko kamisetak,

Deskontrol taldearen elastiko bat, Euskal Herria Askatasuna lelolun zozketa txartel bat, Intxaurrendoko Letaman gaztetxearen inaugurazioaren kartelak, 2006ko Gazte Topaguneko DVD bat, sakabanaketaren aurkako banderola bat, EHAK alderdiaren pegatinak, *Alde Zaharra* izenburudun txosten bat, amnistia-aren ikurra duen giltzatak bat, ETari buruzko liburu bat, Independentzia lelodun DVD bat, AHTaren aurkako idatziak... Hori guztia, Segi gazte erakundearen zenbait ikur, pegatina eta txostenekin batera, frogak gisa aurkeztu zuten epaiketari. Mianketetan bildutakoaz gain, epaileek pisu handia eman diete gazteek atxilotuta aldian egindako adierazpenei, presiopean egin zituztela salatu zuten arren. Hain zuzen ere, Auzitegi Gorenaren epaiak gazte donostiarrek torturak salatu zituztela aipatzen du, baina ez dio garran-

tziarik ematen elementu erabakigarri horri».

Astelehenean Madrilan 40 gazte-
ren aurkako epaiketa hasi zen. Hori-
rietatik hiru eskualdekoak dira:
Aritz Lopez tolosarra, Mikel Ayesta-
ran billabonatarra eta Irati Mujika
amezketarra. Espainiako Auzitegi
Nazionalera 40 gazte hauetatik 36
aurkeztu ziren, eskualdeko hirure-
tatik bi. Irati Mujikak «planto» egitea
erabaki zuen, «auzitegi nazionala
euskal herritarrek epaitzeko inor ez
dela» salatuz. Desobedientzia ekin-
tza honekin, herritarrei «elkartasu-
netik konpromisora» jauzi egiteko
eskatu zien Mujikak. Epaiketari da-
gokionez, lehen egunetan, besteak
beste, ondorengo frogak aurkeztu
zituzten gazteen aurka: EHNAren
inguruko tramitazio paperak; Ama-
rako Festa Batzordearen inguruko
txostenak; Gazte Topaguneraren ba-
tera joan izana; Gazte Egunekeo baz-





kariko txartel bat; pegatina kolekzioak; LABeko pankarta erama-tea...

Mikel Ayestaranen txanda iritsi zenean, asteartean, fiskaltzak ondorengo frogak erakutsi zituen: Villabonako jaietako txandak; mendi irteera bateko argazki bat; Remi Ayestaran, bere anaiaren, omenaldiko argazki bat. Alberto Pradilla kazetariak, epaiketaren lehen egunaren kontaketa egin ondoren, honakoa idatzi zuen: «@albertopradilla: (...) *Zigor eskarien larritasunik egongo ez balitz, hau txiste puta bat litzateke. #libre*». Espainiako egunkarietan, «agentzia» bidez jasotako albiste bezala zabaldu zuten epaiketaren hasiera, eta aretoan gertatua puxika laranjetara mugatu zuten: «Globo laranjekin protestak, Segiren aurkako epaiketaren hasie-

ran». Titular horren jarraian, epaiketaren iraupena eta fiskaltzaren azken elegitea dirudiena: «ETA banda terroristaren jarduera armatuaren osagarria da Segi: kale borroka...», El Pais, 2013ko urriaren 15a. Epaiketa batetatik errugabe edo errudun irteteko behar diren datuez, ezer gutxi; tortura salaketez, ezer ez.

Gazte independentistek epailearen aurrean banaka deklaratu dute aste honetan, eta gehienek, atxilaldian torturak jasan zituztela esan dute. Batzuk, inkomunikazio garaian jasandakoa kontatu dute epailearen aurrean; negar malkotan amaitu duenik ere izan da. Donostiako hamabost independentisten aurkako epaiketetan, epaileak ez zien garrantziarik eman antzeko salaketei. Espanian, ordea, bada «tor-

turapean» egindako polizia deklarazioak onartu ez dituen epailerik: 2010eko uztailaren 27an, inkomunikazio garaian poliziaren aurrean egindako deklarazioa «nahikoa frog» ez dela esan zuen Auzitegi Gorenak. Kasu horretan, Lea-Artibaiko zortzi gazte ari ziren epaitzen, eta hauei ere, Segiko kide izatea leporatzen zien Espainiako justiziak.

Esperantza hori ez zaio arrotza Mikel Ayestarani, «baina Espainiako Auzitegi Nazonaleko atea gurutzatzean, logika guztia galdu egiten dela» gogoratu du. Aritz Lopezekin batera atxilotu zuten billabonatarra, 2009ko azaroaren 24ean. Tolosarrak 22 hilabete egin zituen espetxean. Inkomunikazioaren ondorengo uneak gogoan ditu tolosarrak, eta «surrealistak» izan zirela dio: «Asko ez ginen gure arte

an ezagutzen, baina inpernutik atera berriak ginenez, mozkorrak geundela ematen zuen. Funtzionario batek esan behar izan zigun espetxean geundela, eta ez taberna batean».

Ayestaran lehenago atera zen espetxetik, atxilotu eta zortzi hilabetera. Epaiketa iritsi arteko tarte hori ez dela erraza izan dio billabonatarak: «Lau urte pasa ditugu mehatxu hori atzean genuela, bizitza erabat baldintzatuta. Gogor egin behar diozu zure buruari, eta aurrera egin. Etsaiak zure bizitza baldintzatzea bilatzen du, eta horregatik egin behar duzu gogor. Ingurukoen laguntza ere asko eskertzen da une horietan». Eta gertukoena, ohi denez, senideak izan dira. Hauei ere une gogorrek bizitza tokatu zaie, eta Ayestaranek dioen bezala, «gaizki» pasa dute: «Ni atxilotu baino lau hilabete lehenago Remi anaia hil ziguten ertzainek. Espetxean nengoela, izeba bati ea ama nola zegoen galdetu nion. Amak zera esan omen zion berari, seme batengatik ezin zuela borrokatu, baina bestearengatik, gutxienez, borrokatu dezaket. Aurrera jarraitzeko falta zitzaion indar puntu hori atera zitzaion».

Aritz Lopezen esanetan, une gogor horietan senideek asko eskertu dute herritarrengandik jaso duten elkartasuna, eta aurrera jarraitu ahal izateko hori «oso garrantzitsua» izan dutela azpimarratu du tolosarrak.

2009ko operazio hartan 34 gazte atxilotu zituzten. Ondoren, sei gehiago elkartu zaizkie. 6 eta 9 urte bitarteko zigorrak eskatzen ditu fis-



kaltzak euren aurka. Guztiak elkar ezagutzen ez zirela kontuan hartuta, behin guztiak espetxetik atera ondoren, defentsa prestatzen eta elkar hartzen hasi zirela dio Ayestaranek: «Sarekada egin zutenean, Segiren zuzendaritzaren aurkakoa zela esaten zuten, baina dena gezurra zen, asko ezagutu ere ez baikin egiten. Asmakizun bat besterik ez zen izan; herri bakoitzetik gazte bat hartu zuten. 2012ko urrian iritsi

zitzaigun fiskaltzaren eskaria, eta orduan hasi ginen guztiok elkartzen, defentsa estrategia zein izango zen eta abar eztabaidatzeko».

Epaketak berarekin hainbat ondorio ekarri ditu. Alde batetik, galea ekonomikoa, eta bestetik, gizarteratzea. Epaiketa politikoa dela salatzeko, hainbat bidaia egin dituzte. Aritz Lopezek bidaia horietan hartu du parte, eta Europako 17 parlamentarekin elkartzeko aukera

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

Beti alai
jatetxea

Garaian garaiko janariak
eta arraikiak bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

CDI
Informatika

Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAX: 943 653 916



Ostegunean, 35/02 auzia jarri zen martxan Espainiako Auzitegi Nazionalan. Herriko tabernen epaiketa delakoan, eskualdeko hiru elkarte daude: Ibarako Subegi, Tolosako Intxurre eta Villabonako Iratzar. Bi auzi hauek salatzeke, Euskal Herri osoan eta eskualdean isla izan duen *Libre!* dinamika jarri zen martxan.

Mikel Ayestaranek honela azaltzen du ekimenaren nondik norakoa: «250 euskal herritar inguru gaude auziperaturik, epaiketan edo epaiketaren zain. *Libre! Epaiketa politikorik ez!* dinamikak guzti honekin apurtzea lortu nahi du, auzi politikoei aurrera ez egitea. Elkartasunetik konpromisorako urratsak ematea eskatzen dugu, gatazkatik konpondierako zubi horretan pausoak ematea. Euskal Herrian konponbide garaia da, eta horretan aurrera egiteko, gizarteari eta mundu osoari konpromisoa eskatzen diogu». Billabonatarrak gaineratu duenez, «hemen estatua ez da ari auziperatuen aurka, herri osoaren aurka baizik», eta ondorioz, euren aurkako auzia «azken epaiketa politikoa» izatea nahi dute.

Herriko tabernen aurkako epaiketaren barruan, Periko Gordo joan zen atzo Espainiako Auzitegi Nazionalera, lekuko gisa. Tolosarra Ibarako kudeatzailea da, eta lan boluntario horregatik, Madrilén amaitu du. 35/02 auzia bi zatitan banatzen du Gordok: «Alde batetik inputatuak daude, gu baino egoera larriagoan. Estatuak epaiketa honen ezker abertzalea bururik gabe utzi nahi du, lanketa politikoa egiteko zailtasunak jarritz. Bestetik,

izan du Bruselan. Gustura agertu da tolosarra jasotako erantzunarekin: «Oso harrera ona izan dugu, eta ahal duten neurrian, konpromisoak hartuko dituztela azaldu dute. Adibidez, ikuskatzaile moduan epaiketara joanaz. Aieteko Adierazpena eta gero, ez dute zer gertatzen ari den; aztoratuta agertzen dira». Herrialde Katalanetan, hainbat hitzaldi ematea ere tokatu zaio Lopezi, gazteen aurkako epaiketaren inguruan, eta ekonomikoki laguntza

emateko prest zeuden gazteekin topo egin duela azaltzen du eskualdeko auziperatuak. Horrez gain, etxean, eragile desberdien atxikimendua lortu dute, eta horien artean, «ezohikoa delako» Comisiones Obreras sindikatuarena nabarmendu du Lopezek. Guzti hau Libre dinamikaren barruan sartu behar da, eta ekimen honek, bigarren epaiketara garamatza. Izan ere, aste honetan ez da gazte independentisten aurkako epaiketa bakarrik hasi.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTUAK

bertan elaboratutako
esneki eta txerriki
natural naturalak

www.mahalanaturala.com || 943 67 07 24

KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04

BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL/FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347



ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa

elkarteetako kudeatzaile edo administratzaileak gaude. Oinarriko militanteak gara. Lehendik ez dugu lan asko egiten, eta horrelako gauzekin beldurra sartu nahi digute, oraindik eta gutxiago mugitzeko. Lehen esan bezala, Espainiako Auzitegi Nazionalera egingo ditugun bidaiak, ez dute inongo garrantzirik; dentistarena joatea bezala da, pasa beharreko hitzordu bat».

Eskualdeko hiru Herriko tabernak une honetan Espainiako Auzitegi Nazionalaren kontrolpean daude, duela 11 urteko operazioa medio, orduan jarri baitzuen Espainiako justiziak 35/02 auzia martxan. Orain, epaileak esango du kontrol hori eta elkartearen jabetza noren esku geldituko den. Bestalde, lekuko bezala edo auziperatu bezala Madrilera joateak ekonomikoki izugarritzko eragina duela aipatu dute Madrilan egon diren hiru ki-deek. Mikel Ayestaranen esanetan, ia milioi bat euroko gastua aurrei-

kusten da ondorengo hilabeteetan, bi epaiketa hauekin. Libre! dinamika, horretan ere eragin nahi du, eta hainbat ekimen antolatu dituzte eskualdeko herrietan bidaia, egonaldi, abokatu eta abarren gastuei buelta emateko. Villabonan, adibidez, Libre Eguna antolatu dute azaroaren 23an. «Herriarrek euren elkartasuna erakusteko aukera izango dute egun horretan. Horrez gain, eragile desberdinei konpromisoa eskatu diegu, modu aktiboan ekarpenak egin ditzaten», dio Ayestaranek.

Luze joango dira Segiren eta Herriko tabernen aurkako auziak. Ayestaranek eta Lopezek, esaterako, urriaren 24an, ostegunean, eta hilaren 30ean itzuli beharko dute Auzitegi Nazionalera. Aldiz, herriko tabernetako lekukoek azaroan egin beharko dute Madrilera bidea. Aurreikuspenen arabera, epaiketak 2013. urte amaieran edo 2014aren hasieran amaituko lirateke.



Agenda

JARDUALDIAK

IKT Astea. Urriak 18, ostirala (14.15). Tolosa, Kultur Etxea.

Eskualdeko dendari eta merkatariei zuzendutako argazkigintzari, web orrialdeei eta interneti buruzko ikastaroa.

Nazioarteko Gaurkotasunari Buruzko Mintegia. Urriak 21, astelehena (19.00). Tolosa, Topic. Tolosaldea Lanbide Heziketako Institutuaren lantzerbitzuak antolatuta.

ERAKUSKETAK

Pili Aguado. Urriak 18-21. Tolosa, GKO Gallery, Kale Nagusia, 24.

Felix Ortega. Urriak 18-21. Tolosa, Aranburu Jauregia. Eskultura erakusketa.

Walmara, en un lugar de Etiopia. Urriak 18-21. Tolosa, Aranburu Jauregia.

ZINEA

Dinda Dindai, ezkilen arteko bidea. Urriak 18, ostirala (20.00). Tolosa, Leidor. Aurelio Vicente tolosarraren dokumentala. Izaera etnografiko-k dokumental honek kanpaien mundu bitxia bistaratzen du eta hauen hotsek bere baitan gordetzen dituzten hainbat tradizio erakusten ditu.

Zarafa. Urriak 20, igandea (17.00). Tolosa, Leidor. Urriak 19, larunbata (17.00) eta urriak 20, igandea (17.00). Villabona, Gurea aretoa.

Mud. Urriak 20, igandea (19.30 eta 22.00) eta urriak 21, astelehena (20.30). Tolosa, Leidor.

Amaren eskuak. Urriak 19, larunbata (22.00); urriak 20, igandea (19.30) eta urriak 21, astelehena (21.00). Helduentzako zinea euskaraz. Villabona, Gurea aretoa

KONTZERTUAK

Glaukoma eta Little Martin Seilektah. Urriak 18, ostirala (22.30). Tolosa, Bonberenea. Glaukomak disko berriaren aurkezpen kontzertua eskainiko du.

Kalakan. Urriak 18, ostirala (22.30). Amasa-Villabona, Gurea aretoa.

Izaki Gardenak eta Kokein. Urriak 18, ostirala (23.00). Anoeta, Gazte-
txea. 3 euro.

Organo Kontzertua. Frantisek Vanicek. Université Hradec Králové. Urriak 19, larunbata (20.00). Tolosa, Andre Mari Parrokia.

Belarmiñak, Xabier Montoia eta Morau. Zero Zabor Festa. Urriak 19, larunbata (22.30). Tolosa, Bonberenea.

Txomin Castrori omenaldia. Urriak 19, larunbata (18.30). Villabona plaza. Tolosako dultzaineroak, Oinkari dantza taldea, Ainara & Joana Ortega, Incansables Band, bertsolariak...

Txintzarri Eguna. Urriak 19, larunbata. Kontzertua, afaria... Txintzarri Abesbatzaren eguna ospatzeko. Alegia.

Abesbatza kontzertua. Urriak 19, larunbata. Hondarribiko Xatz-Eskifaia eta Oñatiko Ganbara-Ganbara Gazte Abesbatza. Tolosa, San Frantzisko eliza (20.00).

IRTEERA

Andarto. Urriak 20, igandea. Oargi Mendi Elkarateak antolatutako mendi irteera.

Bermeora ibilaldia. Urriak 19, larunbata (08.30). Albizturren erroldatutako 60 urtetik gorakoei zuzenduta.

Lojibarrea-Iratiko etxetxoak. Urriak 20, igandea. Alpino Uzturrek antolatutako mendi irteera.

LASTERKETAK

II. Herri Lasterketa. Urriak 19, larunbata (11.00). Zizurkil eta Amasa-Villabona artean. *Euskaraz bizi nahi dut* lelopean ospatuko da jaia.

Hernialdeko Rolleski Igoera. Urriak 19, larunbata (16.00). Alpino Uzturrek antolatuta. Irteera arratsaldeko 16.00etan, Tolosako Belate auzotik skating estiloan eta 16.05ean Hernialdeko Bentatik klasikoan. Helmuga Hernialdeko plazan izango da.

HAURRAK

Locuras de Putxineli. Urriak 19, larunbata (18.30). Tolosa, Topic.

Ludoteka. Urriak 19, larunbata (17.00- 20.00). Tolosa, Berdura Plaza. Puzgarriak eta jokoak. Tolosa&Co-k antolatuta.

Magia ikuskizuna. Urriak 19, larunbata (18.00). Tolosa, Lopez-Mendizabal plaza. Sun magoarekin, familiako guztientzat. Tolosa&Co-k antolatuta.

KZ GUNEA

Kz Gunea. Urriak 21, astelehena (11.15- 13.00). Albiztur.

BERTSO AFARIA

Iurre Elkaratearen Bertso Afaria. Urriak 19, larunbata (21.00). Sebastian Lizaso, Julio Soto eta Iker Zubeldia. Tolosa, Iurre Elkartea.

PERTSONA GORREN SENTSIBILIZAZIO ASTEA

Gainditzen Elkarateak antolatuta.

Erakusketa. Urriak 18, ostirala eta urriak 19, larunbata. Tolosa, Kultur Etxea (17.00). Pertsona Gorren Sentsibilizazioaren inguruko erakusketa.

Antzerkia. Urriak 19, larunbata (10.00- 20.00). Tolosa, Leidor.

Ikerketa saioa. Urriak 19, larunbata (11.00). Tolosa, Kultur Etxea. «La situación de las mujeres sordas en relación con el ambiente sanitario y la violencia».

San Estebango Kultur Astea

Urriak 18, 19 eta 20. Tolosa, San Esteban auzoa

Ostiralean, gaueko

21.00etan hasita afaria garga-
gardo azokako menuarekin.
Giroa Alaia Martin eta Oskar
Estanga bertsolariek jarriko
dute. Ondoren, *Ezer ez eta
festa* musika saioari ekingo
zaio.

Larunbatean, arratsaldeko
16.00etan hasita, mus txap-
elketa, haur jolasak, zaldi
gurdi eta poney paseoa auzo-

tik izango dira. Arratsaldeko
18.00etan buruhandiak,
19.00etan txokolate jana eta
00.00etan kontzertuen tar-
tea hasiko da: Konbenio del
Metal eta Humus. Jarraian,
Puntzaka DJaren saioa.

Igandean, eguneko egita-
raua 09.00etan hasiko da
herriko txistularien dianare-
kin. 10.00etan trikitixa auzo-
ko baserrietan entzun ahal

izango da, 11.00etan meza
auzoko hildakoen alde ospa-
tuko dute San Frantzisko eli-
zan. Eguerdian toka txapelke-
tan lehiatuko dira gizonezko
eta emakumezkoak, auzoko
txarangak alaituta.

14.00etan auzoko babarrun
jatea izango da. Eta festei
amaiera emateko, dantzaldia
izango da Joxe Jabier Mendi-
zabalen eskutik.

Jardunaldiak

Mikologia Jardunaldiak

Urriak 18 eta 19, ostirala eta larunbata. Tolosa.

Ostiralean, goizeko

09.00etan, Tolosaldeko
ikastetxeetako DBH.1. mai-
lako ikasleak perretxikoak
biltzera irtengo dira. Arra-
tsaldean Aranzadiko kideek
Tolosako Casinon sailka-
tuko dituzte. Arratsaldeko 19.00etan, elkar-
te-arteko (Gure Txokoa, Veleta, La Jara, Txin-
parta, Yurre, Aurrera, Kabi Alai, Arsenal, Oar-
gi eta Casino) sukaldaritza mikologiko lehia-
keta ospatuko da Zerkausian.



Larunbatean, eguer- diko

12.00etan, azo-
ka mikologikoa ospa-
tuko da Trianguloan.
Tolosa eta Goierrial-
deko jatetxeetako su-
kaldariak onddo eta
perretxiko pintxoak prestatuko
dituzte. Gainera, Trianguloan
bertan Tolosaldeko ikasleek
bezperan bildutako perretxiko-
ak egongo dira ikusgai.

Antzerkia

Euskararen espektakulue

Urriak 18, ostirala (20:30). Tolosa, Topic.



Oihan Vegak eskainita-
ko bakarriketa. Ikuski-
zun honen helburueta-
ko bat, publikoari ba-
rrea eragiteaz gain,
euskararen erabilera-

ren inguruko hausnar-
keta gordina egitea da.
Ikusizunak luzatuko
dituen galderetako ba-
tzuk baina ez dira on-
dorengoak: Zergatik
praktikatzen dugu se-
xua gazteleraz? Nork
daki euskaraz irain-
tzen? Eguneroko bizi-

tzan zergatik jotzen du-
gu horrenbeste erdara-
ra? Bakarriketaren
baitan Kepa Errastik
ekoiztutako film labur
sketch umoretsu sorta
ikusteko parada. Publi-
koak zer esana ere
izango du emanaldiak
aurrera egin ahala.

«Letraz gain, melodiak ere transmititzen du»



Olatz Artola

Glaukoma garden ikusten uzten ez duen sintoma da, eta Juantxo Arakamaren ustetan, gizartea glaukomak jota dago. Talde tolosarrak euren musikaren bitartez gizarteari eragiten dieten gaitzak azaltzen ditu, beraien inguruak ahalik eta garbien ikusi dezan. Gaur hori lortzeko asmoarekin eta gozatzeko helburuarekin izango dira Bonberenean, beraien diskoaren aurkezpenean: Vol2. Hilaren bukaeran aldiz Japoniara doaz sei hiritan sei kontzertu ematera.

Gizartean glaukoma asko al daude?

Glaukoma itsutasun bat bezala hartzen badugu, hau da, gizartean gertatzen diren gauzak ikusten uzten ez digun sintoma bezala, esan dezakegu glaukoma asko egoteaz gain, gizartea itsututa dagoela. Boterean dagoen sistema ekonomikoak eta politikoak horrela nahi duenez eta horretarako arma asko dituen, gizartea bere modura moldeatzen du.

Zer egin daiteke garden ikusteko?

Mundua beti aldatzen doa teknologia alda-

tzen joan den heinean, eta egun, zorionez, baditugu tresnak manta ilun hori zulatzeko.

Eta Euskal Herrian reggae-rap taldeak beti egon dira?

Badirudi geroz eta gehiago azaltzen ari den estiloa dela, baina urte asko dira Euskal Herrian reggae-rap estiloan lanean dabiltzala. Guretzat Bad Sound System taldea da erreferentea. Aitzindariak izan dira euskal musikagintzan estilo horiek jorratzen, jasotzen eta Jamaika Sound System estiloa ondoen ulertzen.

Euskal musikaren ibilbidean ikur izan dira gaztetxeak. Zuek lotura zuzena duzue Bonberenearekin.

Gaztetxeak funtsezkoak dira. Musika munduan dauden talde ia guztiak gaztetxe mugimendutik hasi dira, jotzeko eta garatzeko aukera ematen baitute. Hemen gainera zirkuitu handia dago, eta horri egotzi diezaiokegu amateur kategorian dagoen maila.

Zuen letretan behin eta berriz entzun ditzakegu «izan piromano» bezalakoak. Zergatik sua pizteko beharra?

KONTZERTUA

**Glaukoma eta
Little Martin Selektah .**

Glaukomako disko
berriaren aurkezpen
kontzertua.

GAUR, urriak 18

22: **Osan Bonberenean**
(Tolosa)

Kultura garatzea oso garrantzitsua delako. Kultura gizarte batean funtsezkoa da, eta kultura alternatiboa da menderatzaileetatik ateratzen gaituena. Gaztetxeak ihesbide moduko bat dira, eta gauzak egiteko beste modu bat garatu dezakezu horrelako espazioetan.

Lehen diskoak harrera ona izan zuten. Eta noski, bat ez da nahikoa ezta?

Posible den bitartean ahalik eta gauza gehien egiten saiatuko gara. Gure herrian guri gustatzen zaigun musika estiloa zabaltzea lortzen badugu poztu egingo nintzateke.

Vol.2 zuen bigarren diskoa aurkeztuko duzue gaur, aire berrieekin zatozte ezta?

Eboluzio bat izan da; erdi bilatutakoa eta erdi aurkitutakoa. Jungle, drum

& bass eta dubsteps doinuak sartzen ahalegindu gara, gustatzen zaizkigun doinuak direlako eta talde moduan interesatzen zitzaigulako bide hori hastea.

“ **Gizarte
batean kultura
garatzea oso
garrantzitsua da**”

Haizea sortzeko asmotan beraz.

Noski. Disko honetan gaiak errepikatzen dira, izan ere, ez da txantxetako kontua gizartea nola dagoen eta nora doan. Islatzen duten hondamendi honentzat, badiirudi ez dagoe la inolako aukerarik, eta hori da itsu-

tasun handiena. Guk beste ikuspuntu bat emateko beharra sentitzen dugu. Gainera, doinu berriez gain, kolaborazioak ere baditugu.

Lagrimas de sangre taldearena ezta?

Musika entzuten ezagutu genituen. Iker taldekidea beraiekin harremanetan jarri zen asko gustatu zitzaigulako beraien lana. Gure diskoa bidali zien, eta haiei guk egindakoa gustatu zitzaien. Erlazioa estutzen joan zen, modu natural batean, eta elkarrekin kantu bat egitea erabaki genuen. Talde honek duen mezua oso aberasgarria da musikarentzat, eta baita guretzat Bartzelonako taldearen musika gure diskoan edukitzea ere.

Bideoklipa ere egin duzue, hau ere bigarrena.



Bonberenean garatzen dugunez gure ekintza guztia, bideoklipa ere bertan egitea erabaki genuen, Bonbereneako jendearekin. Bideokliparen emaitzarekin oso pozik gaude.

Bertsotan aritzen zinen hasierako kontzertuetan, baita kapelan ere. Disko berriarekin taula gainerako baduzue pentsatuta berezitasunik?

Ez daukagu ezer prestatuta, momentuaren arabera egiten ditugun gauzak dira horiek. Orain, gaurko kontzertua daukagu buruan, eta uste dugu emanaldi konpletoa eskainiko dugula prest ditugun kolaborazio eta ezustekoekin.

Janponiara joatea ere berezia izango da ezta?

Bai, oso. Bonberenearen bidez lor-

tu dugu Japoniara joatea. Hona talde japoniarrak etortzen dira, eta urtero joaten da hemengo talderen bat hara. Ohitura horrekin jarraitu dugu; aukera horri heldu diogu eta hilaren 29an abiatuko gara.

“**Musika estilo h  zabaltzea lortzen badugu, poztu egingo nintzateke**»

Zer topatuko duzue bertan?

Urriaren 30ean ailegatzen gara, sei egunetarako. Egun bakoitzean kontzertu bat eskainiko dugu hiri ezberdin batean. Oro har areto txiki baina kozkorretan izango dira kon-

tzertuak ematen. Jo eta jo ibiliko gara egun horietan, baina horretara goaz.


Musikak letraz haratago transmitzen du ezta?

Hizkuntzak mesede egiten dio, baino letraz gain melodiak ere transmitzen du. Esaten den horrekin bat doa doinua eta igarri egiten da. Hizkuntza tresna bat da. Bigarren disko honetan euskarak karga gehiago dauka horrela eskatu didalako gorputzak, baina normalean etorri ahala idazten dut, abestiak eskatzen didan hizkuntzan.

Gure herrietatik zehar ere ibiliko zarete ezta?

Oraingoz, bihar, Durangon izango gara. Azaroaren 16an Humusekin batera Lasarten eta 26an Arrasateko gartzetxean.

Farmaziak



Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

Graduatutako betaurrekoak: Nesken graduatutako betaurrekoak galdu ziren Kilometroen egunean Tolosan. Aurkitu dituenak, deitu 692 758487 telefono zenbakira.

Urriak 18, ostirala

Tolosa

Egunekoa: Morant, R.
Zabalarretako lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.
Gauekoa: Olarreaga, M.
Martin J. Iraola etorbidea, 10.
Telefonoa: 943 67 24 38.

Urriak 19, larunbata

Tolosa

Egunekoa eta gauekoa:
Bengoetxea, E.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

Urriak 20, igandea

Tolosa

Egunekoa eta gauekoa:
Morant, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

Urriak 21, astelehena

Tolosa

Egunekoa: Olarreaga, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 01 28.
Gauekoa: Etxebeste, J. M.
Gernikako arbolaren lorategiak, 3.
Telefonoa: 943 65 10 40.

Eguraldia



Iker Ibarluzea
Eguraldi mutila

Ostiralean

Protagonista beroa izango da, hego haizeak indarra hartuko du eta tenperaturak uda itxura hartuko dute. Tolosaldeko tokirik beroenetan aukera handia dago 30°etara iristeko. Eguraldi garbia espero da,

baina goizaldean eta egunaren bukaeran hodei-gune batzuk azalduko dira, eguzkiari ez diote traba handirik egingo.

Larunbatean

Eguraldiak zertxobait okerrera egingo du, hego, hego-mendebaldeko haizea zakar ibiliko da. Fronte ahul bati esker, goizean goiz zaparrada txikiren bat izan dezakegu. Orokorrean ez dira zaparrada handiak izango eta gutxi iraungo dute. Eguerditik aurrera zeruak garbitzera egingo du eta arratsalde-ilunabarra polita gelditu da. Tenpera-

turak ostiralekoekin alderatuta dezente egingo dute beheara eta 22-23°-ren bueltan ibiliko dira.

Igandean

Hego-haizea nagusituko da, zakar ibiliko da eta hodei multzo batzuk ikusiko ditugu. Orokorrean ateri eutsiko dio baina ez da baztertzen tarteka euria egitea.


Astelehenean

Antzeko egoera izango dugu, hodei-gune gutxiagorekin, tenperaturak berdin mantenduko dira.

Nafarroa Oinezen

Tuteran hego haizeari esker

eguraldi ona espero dugu, hemen baina garbiagoa. Tenperaturak zertxobait baxuagoak, 23-24°-ren bueltan ibiliko dira. Joan nahi duenarentzat eguraldia ez da aitzakia izango.



Ostirala
11



Larunbata
12




Igandea
13



Astelehena
14





ZORIONAK!
Josefa Galarza Goñi
(Amezketeta). Gaur 106 urte!
Zorionak eta muxu haundi bat
etxeko guztien partetik.



ZORIONAK!
Maria Esnaola (Lizartza)
Zorionak familia guztiaren
partetik, muxu bat.



URTE ASKOAN!
Izei Amenabarro Urdanpileta
(Ibarra).
Gaur urte bat! Zorionak eta muxu potolo
bat zure amona Edurneren partetik.



URTE ASKOAN!
Izei Amenabarro Urdanpileta
(Ibarra)
Urte 1. Zorionak pottolo! Urtebete zure
alaitasunaz gozatzen, irria ezpainetan.
Muxu goxoak mattia!
Amatxo, aitatxo eta Haitz.



→ Enplegu Zerbitzua

Hemendik aurrera Skype bitartez ere eskainiko du bere zerbitzua enplegu zentroak

Tolosaldea Garatzeneko Enplegu Zentroak Skype bidez ere eskaintzen du zerbitzua. Ehunka dira eskualdean langabezian dauden gazteak, hori dela eta, beraiengana hurbiltzeko asmoz, etxetik ere egin ahal izango dira kontsultak. Zerbitzuak bulegoko ordutegi bera izango du, hau da, 08:00etatik 17:00etara bitartean izango da erabilgarri. Horretarako, interesatuak Skypen sartu behar dute eta 'enplegu zerbitzua' erabiltzailea aurkitu.

Langabeziaren arazoa, Tolosaldean, gero eta jende gehiagok pairatzen duen egoera da. Hori dela eta, ahalik eta zerbitzu onena eta eraginkorrena eskaintzeko asmoz pausoak ematen ari da Tolosaldea Garatzeneko Enplegu zentroa. Hala, hil honen hasieratik bulego berri bat du Villabonako Katea etxean. Eta hemendik aurrera berriz, Skype bidez ere laguntza emateko aukera izango dute Tolosaldea Garatzeneko teknikoak.

Tolosaldea Garatzeneko Enplegu Zentroa, Lanbideko zentro orientatzaile integrala da. Hala ere, horrez gain, lanerako eta prestakuntzarako beharrezkoak diren programei buruzko informazioa ematen du. Besteak beste, honako zerbitzuak eskaintzen ditu: aholkularitza pertsonala, lan eskaintzen kudeaketa eta hauen inguruko informazioa, lan eskaintzetan eta ikastaroetan izen-ematea eta hautaketa prozesuetarako prestaketa.

→ Enpresa Salla

200 parte-hartzailetik gora IKT Astean zehar

Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Foroak, Tolosaldea Garatzen eta Enpresa Digitalarekin batera elkarlanean antolatutako «Tolosaldeko Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) V. astea» urriaren 14tik 18ra bitartean ospatu da. Eki-men honen helburua, eskualdeko biztanleak teknologia berriek eskaintzen dizkiguten baliabideez jabetu eta hauetan ahalmentzea izan da. Izan ere, tresna hauen erabilpenak, gure enpresen eraginkortasun eta lehiakortasunean eragin zuzena izanik aplikazio erraza eta zuzena duten gaiak jorratzen dituzten doako 10 jardunaldi izan dira eskualdean.

Horrela, Euskaltel Fundazioak utzitako autobuseko ikasgela mugikorrean, Tolosako Kultur Etxean,

Lehiberri Zentroan, zein Tolosako KZ Gunean ere ospatu dira lan tailerrak, eta, hauetan, guztira 200 parte-hartzailetik gora izan dira.

Hizlarietako dagokienez, Mondragon Unibertsitateko ikerlari-irakasleak arduratu dira lan tailerren dinamizazioaz, eta ondorengo 10 gaiak jorratu dituzte:

- 1) Web orrirako oinarriko estrategiak.
- 2) Ez daukat online dendarik. Zer egin dezaket?
- 3) Merkatuak eta lehiakideak ikuskatzeko sare sozialak.
- 4) Nola aurki dezaket espezializatutako profesional hori.
- 5) Nola lan egin dezaket online filial, sukurtsal, bezero eta hornitzaileen artean.

6) Learn by doing (eginez ikasi).

7) Eskerak eta lanak sarean aurkitzen dira.

8) Lana aurkitzea.

9) Negozio txiki eta autonomoentzako sare sozialak.

10) Nola gera gaitezke lasai interneten salerosketak egin ostean.

Azpitarragarria da 6 zenbakidun tailerrak izan duen parte-hartzea. Bertan, eskualdeko enpresari eta dendarietako sare sozial ezberdinak nola erabili ezagutu dute euren negozioa sustatzeko. Era berean, Sareak euren denda eta produktuen argazkiak kudeatzeko eta administratzeko eskaintzen dizkien aukerak ezagutu dituzte. Horretarako, erakusketa praktikoak egin dituzte Tolosako denda ezberdinetan.

Irudi bat ideia bati

Zigor Agirrezabalaren Goitik diseinu grafikoaren enpresak egin du Atariaren irudi korporatiboa eta papereko euskarriaren diseinua

Ainhoa Oartzabal

«Goitik Tolosan kokatzen den diseinu grafiko enpresa bat da. Esperimentzia handia duten programatzaile, ilustratzaile eta diseinatzailez osatua. Azken teknologiaz baliatuz lanaren pausu guztiak, ideien sorreratik amaitzeraino, egiteko gaitasuna dugu. Kalitatezko lana eta zerbitzua zure eskura». Aurkezpen esaldi horiek topa ditza-kegu Goitik diseinu grafikoaren enpresaren webgunean, eta esandako hori egiten, berriz, Goitiken bulegoan (lurre auzoa, 20-21, behea) Zigor Agirrezabala diseinatzaile tolosarra.

Duela hiru urte ekin zion bere ibilbideari Goitik enpresak, eta harrezkero elkarre askoren irudi korporatiboak eta diseinu lanak egin ditu. Besteak beste, Galtzaundi aldizkariaren diseinua eta maketazioa edota Txolarre Irratiaren irudi korporatiboa. Hain justu, Tolosaldeko Atariaren oinarri diren Galtzaundiren eta Txolarreren lan grafikoak. Horregatik, Tolosaldeko komunikabideak ondo ezagutzen dituelako, berari eskatu zitzaion Tolosaldeko Atariaren irudi korporatiboa ez ezik, Atariaren papereko euskarrien diseinua egitea.

«Galtzaundi aldizkaria urte askotan maketatu dut, ondo ezagutu dut aldizkaria», azaldu dio Tolosaldeko Atariari diseinatzaileak. Lanean



ikasi du dakiena, eta hala, aldizkariak maketatzen eta hainbat elkar-terren logoak egiten ikasi du, besteak beste, ideia bat begiratu bakarrean laburbiltzen duen irudia egiten. Halaber, Zut enpresarekin eginiko lanek asko irakatsi diotela nabarmendu du.

«Puntu argiak, zehatzak, modako koloreak,... hori hartu behar da kontutan begiratu bakarrean informazioa jasotzeko». Agirrezabalarentzat, zailena, bezeroa konbentzitzea izan ei da: «Kalean jarri behar den kartel batek, jendearen begi aurrean 5 segundoz iraungo duen kartel batek, motza eta zuzena izan behar du. Baina askotan, informazio gehiegi eman nahi izaten da karteletan».

Hala, hainbeste informazio eta irudi artean, galdu egin daiteke jende-ari helarazi nahi zaion mezua.

Dena dela, prozesu polita da Agirrezabalarentzat kanpotik beste norbaitek eskaturiko ideari irudi bat jartzea.

Irudi berritzailea Atariari

Sortze lana izaki, inspirazioa behar beharrezkoa du bere lan egiteko. «Baina inspirazioak lanean ari naitela harrapatu behar nau, bestela etorri bezala joan egiten da».

Tolosaldeko Atariaren logoa eta irudi korporatiboa egiteko ideia nahiko azkar bururatu zitzaion. «Uhin kontzeptuak lotura ematen zion, eta kolore berriek, berritasuna eta gaitetasuna». Uhin horiek irratien uhinak nahiz interneteko rss uhinak ekar ditzake gogora, eta hain justu, etengabeko informazio jario hori ongi islatzen duelako onartu zen Zigor Agirrezabalaren proposamena.



Ikusi eta ikasi



Maria Lopez Altuna
Ikaslea

Egungo lan aukerak gero eta urriagoak direnez, gazteoi estudiatzeaz gain ez zaigu ia beste aukerarik geratzen. Batxilergoa amaituta, gehienok unibertsitatera jotzen dugu.

Bologna plana dela eta, gradu asko urtebete luzatu dira. Beraz, lehengo gazteriak baino formatuago amaitzen omen dugu karrera, edo hala suposatzen da behintzat. Baina, hainbaten ikasketak ez dira hemen bukatzen; gero, atzerrian egindako gradu-ondokoa dator.

Ez ahaztu gehientsuenek ingeles agiria, musika eskolan urte andana eta lehen sorospen eta uretako sorosle ikastaroa burutua dugula. Horrez gain, euskal gaitasun agiria, gormutuen zeinu-hizkuntzaren jakintza eta frantses eta txinera maila onargarria ere badugula, besteak beste.

Eta honekin guztiarekin ausart irteten gara lan mundura, eta itxaropentsu begiratzen diogu tren bideari, bertatik igarotzen ez den trenaren hotsa imajinatuz, gure ordua noiz etorriko zain... Badakigu aukera gutxi dugula, alabaina.

Trebakuntza akademikoak berebiziko garrantzia du lehiakortasuna nagusi den aro honetan. Halere, gutxi batzuk izan ezik, gainontzekoak ez dakigu motxilaren kremlera izorratua aldatzen, gustuko galtzen luzera laburtzen, tantaka- tantaka aritzen den iturria konpontzen... Ikasketekin eta titulu gehiagoren antsiarekin itsututa bizitzako beste zenbait alorren ezaguera galdu dugu. Eta trukea garesti aterako zaigu.

Carpe Diem



Imanol Artola Arretxe. *felix*
Filosofoa eta antzezlea

Bizitza bizi behar dela esaten zaigu askotan; bizitza bizi behar dela esaten dugu askotan. Baina, zeri deitzen diogu bizitza bizitzea? Alaitz eta Mainer-ek honela zioten: «Carpe Diem oihukatu/ atzera ez begiratu/ Carpe Diem oihukatu/ denez ahaztu/ momentua bizitu». Ez da lema txarra, baina egiten al dugu?

Gaur egungo sare sozialetan askotan irakurri izan dut: «si la vida son dos días, que caigan en fin de semana». Baina, hori al da bizitza bizitzea? Zer egingo genuke bizitza guztia asteburua baltitz? Zenbati entzun ote diot joan den irailean, bazela garaia errutinan sartzeko; ondoen errutinan bizi garela. Egia esan, ba al dakigu errutinarik gabe gure burua ondo zaintzen?

Zer da bizitza bizitzea? Adinaren arabera gauza bat edo bestea erantzungo didazue. Halere, ez naiz oker ibiliko, *Carpe diem* bakoitzak bizitzan dituen helburuekin lotzen duela esaten badut. Normalean, helburu horiek etorkizunean beteko direnak izaten dira. Baina, zer gertatzen da behin helburu hori betetzen denean? Bada, beste zerbait bihurtzen dela helburu. Modu horretan, ez gara inoiz bizitza bizitzera heltzen, datorren momentua oraina baino zoriotsuagoa delakoan bizi baikara uneoro.

Horregatik lotu behar da *Carpe diem* momentu honekin. Unea, momentua, instant... onartzea da *Carpe diem*. Ez hemendik segundo gutxira gertatuko dena, instant baizik.

Honaino irakurri baduzu, ulertu ez duzunaren seinale da. Egiazki ulertu izan bazenu, isiltasuna lagun, hurrengo hitzaren beharrik ez duzunaren jakitun izango zinateke-eta.

Aurrera bidean, atzeraka



Ainhoa Barandiaran
Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua

Etxean eta ikastolan, arrazoi faltarik gabe, betidanik esan izan digute heziketa egoki bat eskuratzeko etorkizunean lanpostu on bat izan dezagun. Adibide bikaina Xabier Leteren *Gizon arruntaren koplak* bertso sortan dauka. Bertako bertso batek dioen bezala «ni lana egina naiz semiak hazteko, haiek eskola ona xuxen ikasteko, ikasi eta gero lanian hasteko, ez ditezela izan bazterrak nasteko».

Gutako asko eta askok egin ditugu, hiru, lau edota bost urteko karrerak, baita lanbide heziketako moduluren bat edo beste ere. Hiru urterekin ikastolan hasi eta 22rekin amaitu; ia mende laurdena ikasketetan murgilduta. Beterie, lanpostu on bat izateko helburuarekin. Bada, iritsi dira 22 urteak eta lanean hasteko beharrezko diploma eta titulu guztiak eskuratu ditugu, baina orain beharrezkoena dena falta zaigu, lana.

Beno, garai hobeak iritsiko direla pentsatu eta egoerara moldatu besterik ez dago. Aukeretako bat, lan bila jarraitzea da eta zerbait aurkitu bitartean trebakuntzan sakontzea. Hau da, ikasketak ordaintzeko lain ez bada ere, kapritxo txikiak ordaintzeko zerbait lortzea. Baina badirudi alde guztietatik trabak ja-

rri nahi dizkigutela. Iaz ere, egun, lanbide heziketan zein unibertsitatean %80ko asistentzia exijitzen dute, hots, ezin da klaseen %20a baino gehiago huts egin. Zail samarra beraz, lana eta ikasketak uztartzea.

Hori gutxi ez eta orain pare bat urte unibertsitaterako sarbide proben (selektibitatea) legedia aldatu egin zuten. Gaur egun azterketek 14 puntuko balioa dute lehengo 10 punturen gainetik. Beraz, unibertsitatera sartzeko batz bestekoa 14 punturen arabera egiten dute. Zer gertatzen da honekin? Unibertsitate publikoetako karrera askotako plazak mugatuak direnez, sarbide proban batz besteko altua eskuratu dutenek izaten dute karreraren matrikulatzeko lehentasuna. Baina, noski, azterketa 14 puntutako balioaren muga egin dutenen batz bestekoa eta 10 puntutako balioarekin egin dutenena ez da alderagarria. Hori dela eta, azterketa lehengo legedian egindako askok selektibitatea berriz egin beharko lukete, batz besteko hori altua eta plaza mugatuak dituzten karreretan matrikulatu ahal izateko.

Oztopoak, ordea, ez dira hemen amaitzen. Orain, Wert hezkuntza ministro jaunak proposatutako LOMCE sistema dela eta, nork jakin gure ikasketak eta baita gure ondorengoan ere, euskara hutsean egiteko aukerarik izango ote dugun? Nafarroan, behintzat, euskara bigarren mailako irakasgai bihurtuko da.


Lasai gazteok; ez etsi. Ikasketak lanpostu on bat lortzeko xedearekin egiten dira. Hori bai, gogoratu gure ondorengoek eskola ona ikasteko lan egin beharrean gaudela, beraz lasai. Gutxienez, hilean, 645€ izoztu irabaziko ditugu eta. Akaso, Espainiako Gobernuak urte hauetan zehar lapurtutako diru publikoarekin lagunduko digu egunen batean.






Uholdeak Tolosan

60 urte bete berri dira Tolosak kalte handiak eragin zituen uholdeak jasan zituela. Argazkian 1953ko urriaren 16an Pablo Gorosabel kalean hartutako irudia da Oria ibaia gainezka egiteagatik. Zoritzarrek orduko 200 milioi pezetako kalteak eragin zituen.



herritarrek martxan en marcha



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

NOLAKO AUTOBUS ZERBITZUA NAHI DUZU?

Gipuzkoako Foru Aldundiak zurekin batera hobetu nahi du zerbitzua, eta horretarako 56 herritan bilera irekiak antolatu ditu. Internet bidez ere egin dezakezu zure ekarpena:

www.garraioahobetzen.net.



Gipuzkoa
BERRIA

PARTE HARTU ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean Mugi/Lurraldebus txartela kargatzeko 20 euroko bonoak zotz egingo ditugu.



IBARRA

Euskal Herria 18-1



ORAIN
4 ETXEBIZITZA
LIBREAK
2 LOGELETAKOAK
165.000€-TIK
SUKALDEA EKIPTATUA
INFORMACIÓ
DEHAGO: www.antzibar.com
Tel. 943.744.303
943.812.462 | ANTZIBAR

**AZKEN
ETXEBIZITZAK!!!**

**“OSO
EGUZKITSUA
DEN DUPLEX
IKUSGARRIA!”**



**2 LOGELA
2 BAINUGELA
165.000€-TIK**

Kalitatezko materialak
eta diseinuko sukaldez
ekipatua.
Garajea ere
aukeran.
Informatu zaitez!



**ETXEBIZITZA
BIFAMILIARRA
270.000€-GATIK
120m²-KO
LORATEGIAREKIN**

ALTZO

ERDISOTOKO SOLAIRUA



BEHEKO SOLAIRUA



LEHEN SOLAIRUA



2. SOLAIRUA



ANTZIBAR
CONSTRUCCIONES + ERAIKUNTZAK

Tel.: 943 812 462